

Funtsezko baliabideak:

Garrantzitsua da bezeroa produktuarekin gustura egotea. Horrez gain, gure ustez, kontuan hartzeko puntua da bezeroak bere tatuajea pertsonalizatzea eta berak nahi izan arte tatuajea ez egitea. Horregatik, gure dendan, tatuajea egin baina lehenago, tatuatzailea eta bezeroa batera elkartzen dira diseinua egiten eta prototipo batzuk egiten dituzte gustura egon arte. Honez gain, bezeroak etxean pentsatu nahi badu eta dendara dei bat egin zalantza bat konpontzeko tatuatzailearen telefonoa edukiko du eskura.

Tratu pertsonalaz gain, web horri bat eta sare sozialak ere edukiko ditugu. Web orrian gure prototipoak eta emaitzak erakutsiko ditugu bezero gehiago erakartzeko. Bertan sare sozialen eta e-mail-en linkak edukiko dituzte edozein momentutan gurekin komunikatzeko. Sare sozialetan ere gure emaitzak erakutsiko ditugu, izan ere, azken urteetan ikusi dugu modu hau dela egokiena bezero potentzial gehienetara eltzeko.

Komunikazioa oso garrantzitsua izango da eta bezeroekin kontaktua edukitzeko modu asko eskainiko ditugu.